

## **ADEGIREN HELBURUA**

**Adegiren Helburu nagusia enpresen interesak eragin eta defendatzea da, kalitatezko zerbitzu bat eskeiniz eta, bide batez, enpresen laguntzarako balioko duten proiektuak sortuz. Modu horretan erantzuten dielarik enpresen egungo eta biharko beharrei.**

Horretarako, ondorengo konpromezuak bere gain hartzen ditu:

- 1.-** Erakundearen barneari dagokionean, ikaskuntza, partaidetza, hobekuntza eta entzumen aktiboa bereganatzen ditu erakundearen maila guztietan onartu beharreko arau gisa, politika eta giza alorreko interesetatik modu independente batez arituko delarik.
- 2.-** Akordioaren kultura, enpresen arteko lankidetzaren eta etengabeko hobekuntza bultzatuko ditu enpresa-jardunean izan beharreko ekinbide eta etika nagusi izango direlarik.
- 3.-** Elkarrizketa soziala eta negoziaketa kolektiboa bultzatuko ditu, modu leial eta arduratsu batez arituko delarik, giza oreka eta lehiakortasunarentzat lagungarri izango diren lan harremanak bultzatuz.
- 4.-** Arreta berezi bat eskeiniko die enpresarioaren beharrei, beroiek aurrikusiz eta jarraipena eginez, entzunez eta bere iritzia ezagutuz.
- 5.-** Enplegu sorkuntza, segurtasun, lan osasun, prestakuntza eta ingurugiro politiketan parte hartuko du.
- 6.-** Erakunde, enpresario-talde nahiz hezkuntza alorrekoekin elkarlanean arituko da, arreta berezi bat eskeiniz Lanbide Heziketa eta Unibertsitateari.

**Adegiren helmuga nagusia lidergo sozial bat lortzea da, enpresarioentzat topaleku eta erreferentzia izan dedin, beren lanak merezi duen onarpena lortuz eta bide batez, giza-kohesioa eta Herriaren barne loturak indartu daitezen bultzatuz.**